

## VECINA DE ARETXALDE AFECTADA POR LA FUTURA ZONA INDUSTRIAL:

"Realmente me parece que no somos del todo conscientes de la catástrofe que va a suponer, este PTP y las Normas Subsidiarias a punto de aprobarse, y no solamente para nosotros sino para todo Lezama.

Los vecinos de la zona afectada estamos soportando presiones constantes de promotores y especuladores que nos "aconsejan" venderles cuanto antes ya que quedarnos supondría condenarnos a vivir rodeados de industrias, camiones, ruidos, contaminación, etc.

Parecía una cosa lejana en el tiempo y en el espacio, pero ya está aquí. Nos dicen que el Ayuntamiento proporciona la información a estos promotores para el reparto de los suelos, aunque las normas no estén aún aprobadas.

Hemos acudido al Ayuntamiento en demanda de información. Queremos conocer los peligros reales y saber cuáles son nuestros derechos. Hasta ahora por su parte tenemos el silencio y la indefensión más absoluta. Nos parece mentira que la autoridad municipal nos abandone para favorecer a quien quiere especular con nuestros terrenos. Las industrias estarán a menos de un kilómetro del casco urbano por lo que los afectados directos seremos todos. Muchos terrenos ya están en manos de los promotores industriales con la colaboración del Ayuntamiento, con lo que en cuanto aprueben las NNSS la ejecución que será inmediata.

Algo deberíamos hacer porque nuestra pasividad nos convertiría en corresponsables de que Lezama llegue a convertirse en un basurero industrial de Bilbao".




## ESTE MIERCOLES PLENO DEL AYUNTAMIENTO SOBRE EL FUTURO DE LEZAMA (APROBACION DE NNSS)

Después de meses de total silencio el Ayuntamiento ha convocado Pleno para este miércoles, con la intención de aprobar definitivamente las nuevas Normas Subsidiarias.

Como ya sabéis, de no haber mediado alguna modificación inesperada, la decisión municipal posibilitará la salvaje industrialización de Lezama, poniendo todo Aretxalde a merced de la especulación y de la contaminación.

Durante estos meses pasados, tras haber tenido que modificar el proyecto inicial por graves irregularidades, el ayuntamiento se ha dedicado a dar información a promotores y especuladores, que han llegado a ofrecer públicamente la construcción de naves industriales en terrenos todavía rurales, y ha abandonado a su suerte a los vecinos más afectados.

Queremos conocer las razones que mueven al Ayuntamiento a permitir esta barbaridad. Por eso la Asociación Lezama Bizirik va a acudir a este pleno y anima a vecinos y vecinas a que hagan lo propio.



*Esto no es Marbella pero funciona igual . ¡TODO LEGAL!.*

**MIERCOLES, 29 DE NOVIEMBRE, 20:00HORAS.  
PLENO MUNICIPAL.  
QUE EL FUTURO DE LEZAMA NO TE SEA  
INDIFERENTE!**

**EGUAZTENA, AZAROAOK 29, 20:00ETAN, UDAL  
BATZARRA.  
LEZAMA ETA LEZAMARRON ETORKIZUNAZ  
ARDURATU!**

## HERRI BIDEA BERRERABILIZ

IGANDEA, ABENDUA 17, 10:30ETAN UDALEKO PLAZAN

Garaioltza eta Goitioltza batzen bekoerrekatik

Kaixo lagun!

Lezamako bideak errekuperatzeko kanpainaren barruan Lezama Bizirik Elkartetik Auzolan eta jai jardunaldi berri batean parte hartzeko gonbidatzen zaituztegu.

Goizean alde hau ezagutu eta bide baten garbiketari ekingo diogu. Eta lana eta gero... Jaia! Honez gero, erromeria eta txitxiburruntxi Goitioltzako txokoan. Erdu gurekin jardunaldi hau antolatu eta disfrutatzen!

Laster arte!

## RECUPERACION DE CAMINOS PUBLICOS

DOMINGO, 17 DE DICIEMBRE A LAS 10:30H EN LA PLAZA DEL AYUNTEMIENTO  
Garaioltza y goitioltza unidos por el Bekoerreka

Kaixo lagun!

Dentro de la campaña por la recuperación de caminos desde la Asociación Lezama Bizirik os queremos invitar a organizar y tomar parte en una nueva jornada de fiesta y reivindicación en con auzolan incluido,

Por la mañana nos dedicaremos a conocer la zona y limpiar un camino entre ambos barrios. Y después de trabajar... romería y txitxiburruntxi en el txoko de Goitioltza.  
¡Participa en la organización y disfruta de esta jornada!

Un saludo!



Egin zaitez bazkide

Izena:.....

Abizenak:.....

E-posta:.....

Helbidea:.....

Herria:..... Tlfno:.....

Enviar a [lezamabizirik@lezamabizirik.com](mailto:lezamabizirik@lezamabizirik.com)

Depositar en el buzón de Zorriketan, Aretxalde nº1 Ayuntamiento

## "HERRI BIDEAK BERRESKURATU ETA BERRERABILI"

Lezama Bizirik continúa con su campaña para recuperar y volver a utilizar los caminos vecinales de Lezama. Tomando en cuenta la importancia cultural, social y económica que han tenido pensamos que constituyen un patrimonio que no podemos desperdiciar y dejar en el olvido para siempre.

Así en estos días hemos presentado una petición al Ayuntamiento de Lezama, para que tome iniciativas en este sentido. Iniciativas sencillas y baratas, para las que ofrecemos toda nuestra colaboración. A continuación recogemos la citada petición, y la convocatoria para el 17 de diciembre de Auzolan, a la que estais todos los lezamarras invitados.

Lezamako Udalari:

*Lezama Bizirik Koordinakundeak zehaztu du bere helburuen artean, estatutuen 2.artikuluan "...Lezamako ondare natural, historiko eta urbanistiko zaintza..." eta helburu horiek lortzeko, legezko baldintzak bete ondoren "...edozein ekimen bere helburua baldin bada gure inguru fisiko, sozial eta kulturala zaintza eta hobetza...", eta aurrerago, "...orokorrean norbanakoaren eta guztiion bizi-kalitatea zaindu eta hobetzeko helburutzat duten ekimenak."*

*Lezamako herria auzoz auzo eta baserriz baserri sakabanatutako herria da. Mendez mende HERRI BIDEZ ehundutako sare zabala garatu da bailararen norabide guztieta. Hori dena, orain dela gutxi arte, sekulako ondarea izan da ikuspuntu ezberdinatik:*

- Giza harremanen ikuspuntutik, oinez joaten baitzen jendea toki batetik bestera.
- Gizarte ikuspuntutik, harreman ekonomiko eta giza zerbitzuak eskuratzeko erraztasunak ematen zituztelako.
- Hizkuntzaren ikuspuntutik, tokian tokiko berezitasunak garatzeko.
- Garapen ekonomikoa, lehengaiak eskuratzeko eta abarren ikuspuntutik...

*Kotxea eta asfaltoaren kulturak urte gutxitan hori dena pikutara bidali du eta halako garrantzia duen ondarea desagertzeko zorian dago. Urte gutxi barru inork ez du gogoratuko zein zen errekara joateko bidea, hango iturrira edota geltokira zihoana, herrira jaisteko edo halako basoraino... Era berean auzo bakoitzak bere lotura, bere bideak zituen Larrabetzurantz (Goitioltzatik, Garaioltzatik, Aretxaldetik), Zamudiorantz, Bilborantz...*

*Dena berreskuratzea ez duela zentzurik argi dago, baina neurriko bide-sare bat martxan jar daitekeela, lehen baino lehen, eta kostu handirik gabe ere argi ikusten dugu. Erabili izan diren herri bideak: herrira jaisteko, iturrietarantz, geltokirantz, baseliztarantz, auzoetarantz, Larrabetzu edota Zamudiora joateko, Bermeotik Gernikarantz, Donejakue bidea...errekuperatzeko ahaleginak egin beharko genituzke.*

*Bestalde, bizi-kalitatea zaintzea eta hobetzeko helburuekin, kontuan hartu behar dugu, bizi garen mendebaldean, lehen heriotza kausa 50 urtetik aurrerako pertsonen artean, gaixotasun kardiobaskularren multzoak osatzen duela. Jakina da dieta eta ariketa fisikoa direla arazo kardiobaskularak saihesteko neurririk egokienak.*

*Ariketa fisikoa era askotara egin daiteke, baina merke, arriskurik gabe, tresneri edota instalazio berezirik gabe, teknika eta prestakarik gabe, oinez ibiltzea da, dudarik gabe, edonork egin dezakeena, eta arloko aditu guztiak gomendatzen dutena.*

*Oinez bai, baina non? Errepidearen bazterretatik? Ariketa fisikoa egin egingo dugu baina zurgatzen dugun kea -minbizi-eragilez beteta-, bizi dugun arriskua, jasaten dugun zarata, horrek denak eragiten duen estresa -beste hamaika gaixotasunen eragile...gomendioa birplanteatzena eraman gaitzake. Faktore guztiak kontuan hartuta, benetan hain onuragarria al zaigu gomendatutako ariketa fisikoa? Karreteraren ondotik irtengo bagina, seguru baietz. Horretarako ibilbide egokiak behar ditugu, herriaren inguruan, herritik al den eta hurbilen, karretera eta trafikotik aldenduta, aldaera handirik gabe, ondo txukunduta, balizatuta...*

*Bada garaia oinezkoentzako bideak irekitzeko eta aurreneko pausua izan daiteke aspaldiko herri bideak berreskuratzea. Sasiz beteta daudelako, baten batek hesi bat jarri duelako, ahanzturan gelditu direlako...egokiak badira berreskura daitezke.*

*Aurreko guztia kontutan hartuta Lezama Bizirik-ek eskatzen dio Lezamako Udalari ibiltzeko egokiak izan daitezkeen herri bide batzuk berreskuratzeko proiektua eta finantziazioa abiaraztea, beste herri askotan egiten ari diren moduan, herritarren gozamenerako, herriko ondarea berreskuratzeko, antzinako bideak berrerabiltseko eta karreteraren bazterretik, beste erremediorik ez dutelako, paseatzera edota ariketa fisikoa egiten duten guztien osasunerako.*

